

PRENTSARAKO OHARRA

18/05/03

Iraunkortasunerako diputatuak Garbiker eta Basalan foru soziedadeen jarduketan eta proiektuen balantzea egin dau

Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko diputatua jagokon Batzordearen aurrera etorri da gaur goizean, Garbiker eta Basalan foru erakundeen jarduketan eta proiektuen barri emoteko. EH Bilduk eta Talde Mistoak soziedade bietako zuzendarien agerraldia eskatu daben arren, diputatua bera izan da informazinoa emon dauena.

Gai biak aitatzuz, Aldundiko ordezkariak eskatutako datu guztiak herritarren eta talde guztien esku dagozala zehaztu gura izan dau, Gardentasunaren ganeko Foru Arauari esker. Garbikerri jagokonez, bere egitekoa “hondakinen kudeaketea” dala gogorarazo ostean, bere jardueren oinarritzen daben sei printzipio aitatu ditu.

Murrizketea, baliabideen erabilera eraginkorra eta optimizazinoa bultzatzen daben sentsibilizazino eta hezkuntza kanpainen bitartez; barriro erabiltea, Bizkaian zehar banatuta dagozan txabolen eta 400 edukiontzi zuriren bitartez; birziklapena, ontzi arinen edukiontzi horien kudeaketeagaz; berreskuratzea, Bizkaiko Konpostegiaren jarduerari esker; barriro heztea, Arraiz mendiko ingurumen arloko hezkuntzarako ikasgelak egiten dauen beharra; eta birgaitzea, Kooperera eta Berziklatu enpresen bitartez.

Horrez gain, eta 2018ko ekitaldi honetarako aurreikusita dagon 40.484.030 €-ko aurrekontuagaz bat etorrita, TMB eta Zabalgarbi plantei, 0 isurketa gordinari, ontzien bilketari eta garbiguneei jagokonez erakundeak dituan helburuak zehaztu ditu diputatuak.

Erantzunen txandan, Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek Garbikerreko beharginen gainean itaundu deusie diputatuari, bai gizonen eta emakumeen kopuruaren artean dagon ekidadea dala eta, eta baita azpi-kontratautako beharginen baldintzei jagokonez be. Holan, diputatuak adierazo dauenez, behargin guztietatik %14,6 emakumeak dira, eta azpi-kontratautako enpresak ez dira Aldundiaren eskumenetan sartzen. Gainerako taldeak eskertuta agertu dira Elena Unzuetak emondako informazinoarengaitik.

Horren ostean, Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko arduradunak antzekoa egin dau Bizkaiko Basalan, A.B. (S.A) erakundeagaz. 2018rako aurreikusita dagon 6.686.500 €-ko aurrekontuagaz bat etorrita, aurton aurrera eroango diran ekintzak zazpi arlotan banatzen dira.

Beharrak mendietan; uretako habitatak hobetzeko jarduerak eta egokitzaipena, babeseta eta barriro landatzea erreken ertzetan; kalteen eta fauna basatiko espezieen kontrola; hainbat jarduera Natura 2000 Sareko espazioetan; neguko bideragarritasuna; espezie inbaditzaileen kontrola; eta hainbat arlotako beharginei emoten jakezan prestakuntza ikastaroak eta praktikaldiak.

Lehenengo agerraldiaren ostean gertatu dan moduan, Podemos Bizkaia taldeko ordezkariak Bardintasun Plana betetearen eta Basalaneko lan taldean dagon emakume kopuruaren ganean galdetu dau. Diputatuak adierazo dauenez, une honetan, 56 beharginetik bi baino ez dira emakumeak, baina bere sailak homogeneousotasuna bilatzen dau. Podemos Bizkaia taldeak arriskuen prebentzinoa be azpimarratu gura izan dau,

behargin batek legealdi honetan jasan eban eta heriotzea ekarri eutsan istripua aitatz. Talde Mistoak, bere aldetik, gaur egun aisiaguneez arduratzen dan behargin kopurua beharbada ez dala nahikoa esan dau. EH Bildu taldea, barriz, pozik agertu da, sailak interinidade tasea murrizteko erakutsi dauen asmoa dala eta. Talde Popularrak eta foru gobernua eusten daben taldeek balioan jarri dabe Basalanek egiten dauen beharra.

GAZTELUGATXEKO SAN JOAN

Elena Unzueta diputatuak Talde Mistoak egindako azkenengo agerraldi eskariari erantzun deutso, jende pilaketak saihesteko Foru Aldundia Gaztelugatxeko San Joanen apliketan hasi dan strategiaren barri emoteko. Aurreko agerraldietan egin dauen moduan, Aldundiko ordezkariak Iraunkortasuneko sailak prestatutako proposamenen dokumentua zehaztu dau. Adierazo dauenez, inplikautako eragileei bialdu jake, aurrerago “eurakaz zenbait hartu-emon eta laneko mahai egiteko, Gaztelugatxen emon beharreko pausuak adosteko aukerea emongo dauen gobernantza sistema ezarri ahal izateko”.

Dokumentuak dituan proposamenen artean, garai jakin batzuetan sartzeko sistemak ezartea eta zainketa, arreta eta laguntza postu bat instaletea dagoz. Gainera, azaldu dauenez, Aste Santu honetan emon jako hasierea Sarreren Kontrolerako proba pilotuari, eta bere eretxiz emaitza ona izan da eta etorkizunean ezarri egin beharko litzateke.

Talde guztiak aurrera eroandako ekimenen alde agertu dira, baina Podemos Bizkaiak esan dau oso garrantzitsua dala ingurunea larregi ez aldatzea. Talde horretako ordezkariak autobus lantzaderen ekimenaren aurreko interesa erakutsi dau. Diputatuak zerbitzu horren balorazino positiboa egin dau.

03/05/18

La diputada de Sostenibilidad hace un balance de las actuaciones y proyectos de las sociedades forales Garbiker y Basalan

La diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha comparecido esta mañana ante la Comisión correspondiente para detallar las actuaciones y proyectos de las entidades forales Garbiker y Basalan. Si bien tanto Grupo Mixto como EH Bildu habían solicitado la comparecencia de los directores generales de las sociedades, ha sido la propia diputada la que ha ofrecido la información.

Refiriéndose a ambas cuestiones, la representante foral ha querido matizar que todos los datos solicitados se encuentran a disposición tanto de la ciudadanía como de los grupos gracias a la Norma Foral de Transparencia. En lo que se refiere a Garbiker, tras recordar que su función es la de “la gestión de los residuos”, ha enumerado seis principios que fundamentan su actividad.

La reducción, a través de campañas de sensibilización y educación que fomentan el uso eficiente de los recursos y su optimización; la reutilización, mediante casetas y 400 contenedores blancos de reutilización repartidos por Bizkaia; el reciclaje, con la gestión de contenedores amarillos de envases ligeros; la recuperación, gracias a la actividad de Bizkaiko Konpostegia; la reeducación, labor realizada por el aula de educación medioambiental del Monte Arraiz; y la reinserción, a través de las empresas Koopera y Berziklatu.

Asimismo, y de acuerdo al presupuesto de 40.484.030 € previsto para este 2018, la diputada ha detallado los distintos objetivos que se plantea la entidad respecto a las plantas TMB y Zabalgardi, el vertido crudo 0, la recogida de envases y los garbikunes.

En el turno de réplica Podemos Bizkaia y EH Bildu han interpelado a la diputada en relación al personal de Garbiker, tanto en la equidad entre el número de hombres y mujeres como en las condiciones de los trabajadores subcontractados. A este respecto la diputada ha asegurado que el 14,6% de la plantilla son mujeres y que las empresas subcontractadas no son competencia foral. El resto de grupos se han mostrado agradecidos con la información detallada por Elena Unzueta.

Seguidamente, la representante del departamento de Sostenibilidad y Medio Natural ha realizado un procedimiento similar con la entidad Bizkaiko Basalan, A.B. (S.A). De acuerdo con el presupuesto de 6.686.500 € previsto para 2018, las acciones que se llevarán a cabo este año responden a siete ámbitos.

Labores en los montes; actividades para la mejora de hábitats acuáticos y acondicionamiento, protección y repoblación en los márgenes de ríos; control de daños y de especies diversas de la fauna silvestre; trabajos diversos en espacios de la Red Natura 2000; vialidad invernal; control de especies invasoras; y cursos de formación y prácticas a trabajadores de distintos ámbitos.

Al igual que en la primera comparecencia, el representante de Podemos Bizkaia ha hecho referencia al cumplimiento del Plan de Igualdad y al número de mujeres con el que cuenta la plantilla de Basalan. La diputada ha manifestado que actualmente el personal solo

cuenta con dos mujeres del total de 56 plazas pero que su departamento desea la homogeneidad. El grupo Podemos Bizkaia también ha hecho hincapié en la prevención de riesgos aludiendo al accidente mortal que uno de los operarios ha sufrido durante esta legislatura. El representante del Grupo Mixto, por su parte, ha resaltado que el número actual de trabajadores que se encargan de las áreas de esparcimientos puede ser insuficiente. Por su parte EH Bildu, se ha congratulado por la intención, por parte del departamento, de reducir la tasa de interinidad. Tanto Grupo Popular como los grupos que sustentan al gobierno foral ha puesto en valor el trabajo que realiza Basalan.

SAN JUAN DE GAZTELUGATXE

La diputada Elena Unzueta ha respondido a una última petición de comparecencia del Grupo Mixto a fin de que detallara la estrategia que ha comenzado a aplicar la Diputación Foral en San Juan de Gaztelugatxe para intentar evitar aglomeraciones. Al igual que ha hecho en comparecencias anteriores, la representante foral ha hecho un repaso del documento de propuestas elaborado por el departamento de Sostenibilidad y que, según ha manifestado, ha sido remitido a los agentes implicados para más adelante realizar “una serie de contactos y mesas de trabajo con los mismos de cara a establecer un sistema de gobernanza que permita acordar los pasos a dar en Gaztelugatxe”.

Ese documento contiene propuestas como la implantación de sistemas de acceso en épocas concretas y la instalación de un puesto de vigilancia, atención y asistencia. Asimismo ha explicado que durante esta Semana Santa se ha iniciado una prueba piloto de Control de Acceso el cual ha tildado como beneficioso y ha asegurado que se debería implementar en el futuro.

Todos los grupos junteros han mostrado su apoyo a las iniciativas llevadas a cabo, si bien el grupo Podemos Bizkaia ha advertido sobre la importancia de que no se magnifique el entorno. También su representante se ha mostrado interesada por la iniciativa de autobuses lanzadera, la cual la diputada ha valorado positivamente.